


BERRI OROKORRAK

2025eko irailaren 26an

6. zenbakia

Ordutegia

Gogorarazi nahi da **astelehenetik**, irailak 29, HHko 2. zikloko (3-6 urte), LHko eta DBHko ikasleek, **goiz eta arratsaldeko ordutegia** hasiko dutela.



Ikasketa-beka

2025/2026 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea **urriaren 6ra** arte irekita egongo da.

Informazio guztia [hemen](#) ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagorako idazkaritzarekin jarri harremanetan.



Era berean, Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzaketari laguntzeko asmoz, beka-sistema propioa eskainiko die bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak [hemen](#) irakur daitezke. Beka idazkaritzan bideratzeko eskatu txanda idazkaritzan.

Liburutruk

Liburutruken parte hartzen duten ikasleei, liburuak, ikastolako lehenengo egun hauetan banatzen ari zaizkie. Liburuak jasotzearekin batera, ikasle bakoitzak liburu guztiak jaso dituela egiaztatu beharko du. Edozein gorabehera zuzentzeko 10 eguneko epea egongo da. Epe hori pasata, liburu guztiak behar bezala jaso direla ulertuko da. Ikasturte amaieran **liburu guztiak** egoera egokian (puskatu eta margotu gabe,...) itzultzen ez badira, bere kostu prezioan kobratuko dira. **Bigarren zatia**ren kobrantza, irailaren 30ean egingo dela jakinarazten da.



Eskola-kirola

Datorren asteen hasiko dira esku pilota, Zirimara LH1-4 eta Zirimara LH5-6 multikiroleko eskaintzak.

OHARRA: Zirimarako LH1-4 eskaintzako haurrak, dagokien egunean, kiroldegiko aldapako sarrerara azaldu daitezela.




HAUR-HEZKUNTZA

HH 5eko familiei zuzenduta

Ekainean azaldu genizuen bezala, BCBLn (Basque Center on Cognition, Brain and Language) dislexiari buruzko ikerketa bat abiatuko dugu 2026ko hasieran. Ikerketaren helburu nagusia dislexiaren lehenengo zantzuak goiz detektatzea eta dislexiaren garapenean eragina izan dezaketen faktoreak identifikatzea da.

Parte-hartzaileen profil oso zehatza behar dugunez (dislexia duten zuzeneko senideak dituzten HH 5eko haurrak), asmoa proiektuaren informazioa ahalik eta guraso gehienengana zabaltzea da. Hona hemen [informazioa](#)



LEHEN HEZKUNTZA

Ez dago informaziorik.

DBH

Guraso-bilerak

Bilera orokorretako datak honako hauek izango dira:

DBH 1: urriak 1, asteazkena

DBH 2: urriak 2, osteguna

DBH 3: Urriak 6, astelehena

DBH4: urriak 7, asteartea

Bilerak, DBH-ko eraikin gorrian egingo ditugu, 17:00etan.
Bileretan azalduko den informazioaren txostena Alexia bidez bideratuko da.

